



# **VADEMECUM**

Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko 2004-2008 aldiko erabateko egitarauentzako

2004ko urtarrila

# AURKIBIDEA

## 0. Sarrera

### 1. Hirialdeak biziberritzeko erabateko egitarau batek izan behar dituen edukiak.

1.1. Egungo egoeraren deskribapena

1.2. Estrategia eta Lehentasunak

1.3. Neurriak eta Jarduerak

1.4. Finantza-aldeak

1.5. Lankidetzak

1.6. Antolamendua

1.7. Aldez aurretiko ebaluaketa

### 1. Eranskina: Jardute-eremuen sailkapena

### 2. Eranskina: Fitxa erdua eta adierazleen adibideak

## 0. SARRERA

**Vademecum honek ez du, jakina, izaera arau-emailerik. Funtzio hori betetzeko bertan aipatzen diren legezko testuek soilik izango dute balioa.**

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarenak diren abenduaren 16ko 306/2003 Dekretuan eta 2004ko urtarrilaren 21eko garatzeko Aginduan ezarritakoaren arabera, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari aurkezten zaizkion gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauen proposamenek jaso behar dituzten edukien laburpen zehatz bat, eta batzutan erraztua, eskaintzen du Vademecum honek.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak Vademecum honi zenbait osagarri ezartzeko asmoa du, bai bertan jasotako gaiak argitzeko edota horietaz luzatzeko, bai berariazko araudia aplikatzerakoan eragina izan dezaketen oraingoaz aztertu ez diren beste batzuk garatzeko.

## 1. EGITARAU BATEK IZAN BEHAR DITUEN EDUKIAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan (aurrerantzean EPZ) aurkeztutako gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauen (aurrerantzean IZARTU) proposamenek ondoren zehazten diren elementuak jaso beharko dituzte.

### 1.1 Egungo egoeraren deskribapena:

Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauari laguntzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 16ko 306/2003 Dekretuan (aurrerantzean Dekretua) eta Dekretuaren jardura-esparruan laguntzak emateko deialdia argitara emateko den Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2004ko urtarrilaren 21eko Aginduan (aurrerantzean Agindua) aipatzen den moduan, hirialdeak diruz lagunduak izateko, beraien biziberritzea beharrezkoa egiten duten irizpide batzuk bete behar dira, besteak beste: langabezia, udal-ekipamenduen horniketa urria, azpiegitura fisikoen gabezia, herri barruko auzoen artean etendurak egotea, kutsadura, ingurugiro fisiko narriatua, hiri-pilaketaren arazoak egotea (aisialdi eta atsedenerako leku gutxi egotea, oso trafiko handia ibiltzea udalerritik, batez ere, ibilgailu astunak, etab.), delinkuentzia edota herritarren segurtasunari dagokionez arazoak egotea, droga-mendekotasuna, Europar Batasunaz kanpoko atzerritar multzo handi bat biltzea eta gizarte-bazterkeriak mehatxaturiko talde kopuru handia egotea. Beraz, Egitarauak honako hauek jaso behar ditu:

- a) Esku-hartzearen xede den hirialdearen deskribapena: azalera geografikoa, parametro demografikoak (aurreikusitako biztanleri onuraduna ezinbestez) eta gizarte, ekonomia eta hiri aldetik dituen bereizitasun eta arazoen laburpen bat.

- b) Hirigune horrek duen arazoan inguruan informazio osoa emango duen gizarte, ekonomia, hiria eta ingurumenari buruzko azterketa, bereziki hirialdeak duen egoeraren deskribapena, Dekretuaren 3. artikuluan adierazitako gizartezko eta ekonomiazko gainbehera definitzeko irizpideei dagokienez.
- Jarduera ekonomikoa, enplegua eta lan-merkatua hartzen dituen egoera sozial eta ekonomikoaren deskribapena.
  - Ukitutako hirialdearen ingurumenaren egoeraren, kutsadura, ingurugiroa eta antzekoei loturiko arazoan eta gai honetan onartutako udal politiken (Tokiko Agenda 21...) deskribapena.
  - Egungo hirigintza-egoeraren deskribapena, ondorengo hauek nabarmentzeko bide emango duena: aisialdi eta atsedenerako guneen urritasunarekin, trafikoarekin eta antzekoekin loturiko arazoak; administrazio, kultura, gizarte, sorospen eta abarreko dotazio eta ekipamendu maila; azpiegitura fisikoen gabezia, herri barruko auzoen artean etendura egotea, etab.; eta baita etxebizitza-multzoaren instalakuntza eta zerbitzu maila ere.
  - Herritarrek duten segurtasun sententziaren deskribapena eta baita krimen-kopuru, toxikomaniak eta antzeko mailarena ere.
  - Aukera berdintasunaren egoerari, gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden taldeei buruzko deskribapena.
- c) Indarguneen eta ahulenen arabera ondorioak lantzea, eta baita egungo egoeraren aukeren eta arriskuen arabera ere (AMIA azterketa). Halaber, zehaztutako gunearen etorkizunerako garapenari buruzko ondorioak landuko dira, baita tokioa baino zabalagoko lurralde eremuan ere.

## 1.2 Estrategia eta Lehenetsunak

Egitarauen estrategia eta lehenetsunek hiri-eduki garbia izan behar dute eta tokiko arazoei heldu. Horrez gain, ondorengo elementu hauek kontuan izan behar dituzte:

- a) Ezarriko dira, alde batetik, Egitarauak izan behar dituen helburu orokor eta zehatzak; eta bestetik, Egitarauaren eta Europar Batasunaren zeharkako politiken (bereziki, ingurugiroa eta aukera-berdintasunari dagozkienak) gizarte, ekonomia eta lurraldetasunaren kohesioarenak diren helburu orokorreko koherentzia.
- b) Ekonomia, gizarte eta hiriko berpizterako diren aurreko helburuetara iristeko estrategia egokiaren (Jardueren) eta helburuok lortzeko zehaztutako lehenetsunen deskribapen zehatza egin.
- c) Egitarauan ezarritako lehenetsunen (lehenetsunezko Ardatzen) eta horiek osatzen dituzten Neurrien deskribapena (Vademecum honen 1. Eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz).

## 1.3 Neurriak eta Jarduerak

Neurriak eta horiei loturiko Jarduerak dira Ardatz bezala izendaturiko lehenetsunezko estrategiak praktikan jartzeko bideak, normalean urte anitzetan.

Egitarauak, gauzatzeko aurreikusita dauden Neurri eta Jardueren edukiari buruzko informazio zehatza eman behar du. Honako hauek jaso behar dira: izena, deskribapen bat, helburu orokorrak, aurreikusitako onuradunak eta Jarduerak gauzatzeko ardura har dezaten aurreikusi diren erakundeak.

Horrez gain, dagozkion jarraipen-adierazleen zerrenda (burutzapena, emaitza eta eragina) ere gehituko da:

- Esku-hartzeak aurrera doazenaren adierazleak: burutzapen-adierazleak.

- Helburu zehatzen betetze-mailari dagozkion adierazleak: emaitza-adierazleak.
- Helburu orokorren betetze-mailari dagozkion adierazleak: eragin-adierazleak.

(Ikusi Vademecum honen 2. Eranskinean jasotako fitxa eredia eta adierazleen adibideak).

#### **1.4 Finantza-aldeak**

Proposatutako finantza-planaren deskribapen zehatza (ikusi ereduak deialdirako Aginduaren 1. Eranskinean).

#### **1.5 Lankidetzatza**

Lankidetzarako prozeduren barruan, Egitarauari buruz kontsultatzeko emandako urratsen eta gizarte eta ekonomia solaskideengandik lortutako laguntzen berri eman beharko da: ekonomia eta gizarte solaskideak, auzokideen elkarteak eta antzekoak, eta baita interesa duten beste erakundeak. Hori guztia kontsulta horien emaitzekin batera.

#### **1.6 Antolamendua**

Bai aurreikusitako esku-hartzeen jarraipen, ebaluaketa, kontrol eta publizitaterako prozeduren bai hirialdeak biziberritzeko erabateko egitarauaren deskribapen xehatua. Egitarauaren deskribapena ikuspuntu orokor batetik egingo da.

- Jarraipena eta ebaluazioa: jarraipen eta ebaluaketaren ardura duen erakunde bakoitzak egin behar dituen zeregin garrantzitsuenen deskribapena, batez ere, datu-bilketan (jarraipena) eta bitarteko eta azken ebaluaketaren prestaketan duen eginkizuna. IZARTUn izandako aurrerapenen aldizkako berraztertzea egiteko, Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta bitarteko eta bukaerako ebaluaketak antolatzeke hartu diren neurriak deskribatuko dira.

- **Kontrola:** Egitarauaren betearaztea kontrolatzeko mekanismo garrantzitsuenen (jardunbide eta arauak) deskribapena, edozein gastu publikoari aplikatu beharreko finantza-kontrolerako ohiko prozedurez aparte. Deskribapen honek jaso behar ditu, alde batetik, ikuskapen-mekanismoetan parte hartzen duten alde guztien eginkizunaren definizioa, eta bestetik, erakundearen izena, helbide ofiziala eta IZARTU Programa aplikatzearen finantza-kontrolerako arduraduna.
- **Publizitatea:** IZARTU laguntzaren publizitatea eta hedapena bermatzeko ezarritako neurri eta prozeduren deskribapena.

Araudiaren arabera, Onuraduna da EPZrekiko solaskide ofizial eta formala. Onuradunaren ahalordeen edozein eskuordetze espresuki adierazi beharko da eta Hitzarmen baten bitartez formalizatu.

Testuinguru honetan, bi eskuordetze mota bereizi daiteke:

- **Arduradun Kudeatzailea:** Onuradunak aukeratutako erakunde publiko edo pribatua, Dekretuan eta Aginduan ezarritakoari jarraituz, IZARTUren kudeaketa eginkizunetan jardungo duena. Honelakoetan, Onuradunaren eta Arduradun Kudeatzailearen arteko harreman-motak zehaztuko dira.
- **Arduradun Finantzarioa:** Aurrekoak dituen ezaugarri berberekin, ordainketa-eskaerak aurkezteko eta laguntzak jaso eta kudeatzeko izendatuko da. Honelakoetan, Onuradunaren eta Arduradun Finantzarioaren arteko harreman-motak zehaztuko dira.

### **1.7 Aldez aurretiko ebaluaketa**

306/2003 Dekretuak aurreikusten du aldez aurretiko ebaluaketa IZARTU Egitarauaren proposamena prestatzeko eta aurkezteko ardura duten aginpideen ardurapean egingo dela (Onuradunak – ikusi Dekretua eta Agindua). Dekretuak adierazten du ere, Egitaraua autoaztertu eta autoebalutzeko balio behar duen aldez aurretiko ebaluaketa hori Egitarauari gehituko zaiola.

Aldez aurretiko ebaluaketa, egungo egoeratik, hautatutako estrategia eta lehentasunen koherentziatik, espero diren eraginetik, baliabideak esleitzeko egokitasunetik eta praktikan jartzeko aurreikusten den modutik eratorritako azterketa azaldu eta justifikatzen duen atal bat izango da.

Bere edukiak hartuko ditu, aldez aurretiko ebaluaketaren ikuspegitik, ondorengo elementu hauen kalitate estrategikoaren eta programaketaren azterketak:

a) Estrategiaren egokitasuna Dekretuaren helburuekiko egokitzapena: aldez aurretiko ebaluaketaren alde honek, batez ere, ondorengo hauek aztertu behar ditu:

- Egoera sozial eta ekonomikoa.
  - Ingurugiroaren eta hirigintzako egoera.
  - Aukera-berdintasunarekiko eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden taldeekiko egoera.
- Hirialdearen beharrekiko egokitzapena: Aukera estrategikoen eta aztertutako hirialdearen ezaugarrien arteko koherentzia.
- Estrategiak eta honen helburuek aztertutako hirialdearen berezitasunekiko gordetzen duten koherentzia.
  - Aurreikusitako lehentasunezko jarduerengandik espero diren ondorioak, hasierako egoerari dagozkion berariazko helburuak kuantifikatuz, kuantifikaziorako bide ematen baldin badute. Egoera sozial eta ekonomikoan, ingurumenaren egoeran eta aukera-berdintasunean espero den eragina gehiago azpimarratu behar da.
  - Esleitutako finantza-baliabideak ezarritako lehentasunen artean banatu izanaren justifikazioa.

- Tokiko, eta hala dagokionean, foral, autonomiko eta garrantzi handikoen politika eta lehentasunekiko koherentzia.
  - Beste aukeren aurrean hautatutako strategiaren egokitasuna (aurkeztutako hirialdearen ahalmen, hutsune eta gaitasunei buruzko AMIA azterketaren ondorioak).
- b) Egitaraua aplikatzerakoan efikazia eta eraginkortasuna ziurtatzeko tresnen egokitasuna: praktikan jartzeko, jarraipena egiteko eta tarteko eta azken ebaluaketak egiteko proposatutako mekanismoak (jarraipen-batzordeak, kanpoko laguntzak...).

**ERANSKINAK**

## **1. ERANSKINA JARDUTE-EREMUEN SAILKAPENA**

Ondoren aurkezten den jardute-eremuen zerrenda Onuradunek aurkeztutako esku-hartzeen gutxienezko taldekatze homogoneoa lortzeko prestatu da, eta baita ere, dirulaguntzen aplikazio globalaren jarraipena eta azterketa egiteko.

Urteko eta bukaerako txostenetan erabiliz gain, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko beste sektore-arduradunekin komunikazio garbia edukitzeko lagunduko du. Mailen araberrako informazio hau ezinbestekoa da EPZk beste erakunde-istantzietatik, eta gizartetik oro har, eskatutako informazioari erantzuna eman diezaion.

### **1. ARDATZA. Produkzio-ingurunea**

- 1.1 neurria. Jarduerari laguntzeko azpiegituren sorrera eta garapena.
- 1.2 neurria. Produkzio-azpiegituraren sorrera eta garapena.
- 1.3 neurria. Enpresariei, ETEei eta artisau-enpresei laguntza.
- 1.4 neurria. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea.

### **2. ARDATZA. Tokiko oinarrizko azpiegiturak**

- 2.1 neurria. Garraio azpiegitura.
- 2.2 neurria. Telekomunikazioa eta Informazio Gizartea azpiegitura.
- 2.3 neurria. Azpiegitura Energetikoa.
- 2.4 neurria. Ingurumen-azpiegitura.
- 2.5 neurria. Antolamendu eta Birgaitze azpiegitura.
- 2.6 neurria. Gizarte eta Osasun azpiegitura.
- 2.7 neurria. Aisia eta Kultura azpiegitura.
- 2.8 neurria. Hezkuntza eta Prestakuntzako azpiegitura.

### **3. ARDATZA. Gizarteratzea eta tokiko zerbitzuak**

- 3.1 neurria. Gizarteratzea.
- 3.2 neurria. Aukera-berdintasuna.
- 3.3 neurria. Gizarte hezkuntza eta prestakuntza.
- 3.4 neurria. Herritarren Segurtasuna.
- 3.5 neurria. Gizarte eta laguntza zerbitzuak.
- 3.6 neurria. Gizarte eta kultura zerbitzuak.
- 3.7 neurria. Bestelako tokiko oinarrizko zerbitzuak.

### **4. ARDATZA. Laguntza teknikoa**

**2. ERANSKINA: FITXA EREDUA ETA ADIERAZLEEN ADIBIDEAK**

(Argazkia, mapa, plano aukeran)

Ardatza:

Neurria:

Jarduera:

Jardueraren azalpena

Helburuak:

Onuradunak:

Aurreikusitako diru-zuzkidura:

Erakunde edo Arlo arduraduna:

Burutzapen-adierazleak:

Emitza-adierazleak:

Eragin-adierazleak:

**Adierazleen adibideak:**

ARDATZA/NEURRIA	BURUTZAPEN-ADIERAZLEAK	EMAITZA-ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>1. ARDATZA: Produkzio-ingurunea</b>			
1.1. Jarduerari laguntzeko azpiegituren sorrera eta garapena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Laguntza jasotzen duen egitasmo kopurua</li> <li>➤ Jarduera ekonomikoaren mesedetan emandako/sortutako zerbitzu/egitarau/jarduera kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hirialde onuradunetan kokatutako enpresa kopurua</li> <li>➤ Zerbitzuak erabiltzen dituzten edo horien onuradunak diren edo horiekin kontent dauden enpresen %</li> <li>➤ ....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ Sortutako/erakarrirako enpresak</li> <li>➤ Hirialde onuradunean 2 urte ondoren sortutako balio erantsiaren gehikuntza</li> <li>➤ Negozioaren bolumenaren gehikuntza hirialde onuradunean</li> <li>➤ .....</li> </ul>
1.2. Produkzio-azpiegituraren sorrera eta garapena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/eraikitako/berritutako azalera erabilgarria</li> <li>➤ Instalazio berrien kopurua</li> <li>➤ Berritutako/sortutako ekipamenduak</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Jarduera ekonomikoari laguntzeko instalazioak</li> <li>➤ Sortutako zerbitzuen/instalazioen... onuradun kopurua (ETEak, enpresak, langabetuak, ekintzaileak...)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ Sortutako/erakarrirako enpresak</li> <li>➤ Hirialde onuradunean 2 urte ondoren sortutako balio erantsiaren gehikuntza</li> <li>➤ Negozioaren bolumenaren gehikuntza hirialde onuradunean</li> <li>➤ .....</li> </ul>
1.3. Enpresariei, ETEei eta artisau-enpresei laguntza.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Enpresa/talde jakin onuradunen kopurua</li> <li>➤ Aholkatutako/lagundutako/prestatutako enpresak/ekintzaileak/dendak</li> <li>➤ NTIC, ingurumen-irizpideak, kudeaketarako tresnak... sartzen dituzten enpresak</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradun diren enpresetan eragindako inbertsio pribatua</li> <li>➤ Salmenta berriak edo areagotuak ETEetan</li> <li>➤ Intereseko edo sustatutako sektoreetan sortutako enpresak</li> <li>➤ Emandako zerbitzuak eskura ditzaketen langileen/enpresarien %</li> <li>➤ Emandako zerbitzuekin pozik dauden enpresen %</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ Sortutako/erakarrirako enpresak</li> <li>➤ Sartutako produktu/prozesu berrien kopurua</li> <li>➤ Hirialde onuradunean 2 urte ondoren sortutako balio erantsiaren gehikuntza</li> <li>➤ Negozioaren bolumenaren gehikuntza hirialde onuradunean</li> <li>➤ .....</li> </ul>
1.4 Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako edo hobetutako ohe kopurua</li> <li>➤ Garatutako/hobetutako hotel kopurua</li> <li>➤ Sortutako/hobetutako ikuskizun kopurua</li> <li>➤ Sortutako edo laguntza jasotzen duten enpresa edo zerbitzu/gertakizun turistikoko berriak</li> <li>➤ Azalera erabilgarria</li> <li>➤ Prestakuntza ikastaro/aholkularitza saio kopurua/prestakuntzaren onuradunen kopurua</li> <li>➤ Finantzatutako egitasmoak.....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako ostatuetan urtean zehar gau-okupatu kopurua</li> <li>➤ Bezeroen poztasun-indizea</li> <li>➤ Bisitari kopurua</li> <li>➤ Tokiko jarduera ekonomikoekin loturiko hitzaldien/erakusketen %</li> <li>➤ Bertaratutako edo parte hartutako azoka/gertakizun kopurua</li> <li>➤ Sortutako produktu berriak</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Urtean sortutako balio erantsia</li> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ Sortutako/erakarrirako enpresak</li> <li>➤ Sartutako produktu/prozesu berrien kopurua</li> <li>➤ Hirialde onuradunean 2 urte ondoren sortutako balio erantsiaren gehikuntza</li> <li>➤ Negozioaren bolumenaren gehikuntza hirialde onuradunean</li> <li>➤ .....</li> </ul>

ARDATZA/NEURRIA	BURUTZAPEN-ADIERAZLEAK	EMAITZA-ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>2. ARDATZA: Tokiko oinarrizko azpiegiturak</b>			
2.1. Garraio azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Eraikitako/hobetutako bide/errepide/sarbide Km.</li> <li>➤ Sortutako/eraikitako/berritutako azalera erabilgarria</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Aurreztutako denbora (bidaiaren denbora erabiltzaile kopuruko)</li> <li>➤ Aurreztutako denbora (bidaiaren denbora zama eta bidaiaren bolumenaren arabera)</li> <li>➤ hirialde onuraduneari irisgarritasunaren hazkundeari %</li> <li>➤ Sortu edo hobetutako sarbide/bideen onuradunak diren enpresen/biztanleriaren %</li> <li>➤ ....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Bidaiarien/ibilgailuen/zamaren trafikoaren hazkunde edo jaitsieraren % urte baten bukaeran</li> <li>➤ Ingurumenarekiko eragina (gehitze edo gutxitze-%)</li> <li>➤ Trafikoak sortutako zarataren aldaketa - hots-kutsadurak gutxiagotzea</li> <li>➤ Segurtasuna areagotzea (istripu kopurua urte bat igaro ondoren)</li> <li>➤ Erabiltzaileen/doakien poztasuna</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.2. Telekomunikazioa eta Informazio Gizartea azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ 1.000 biztanleko telefono-linea digitalen proportzioaren gehikuntza / RDSIen harpidetzen kopurua 1.000 biztanleko</li> <li>➤ Ezarritako sarearen luzera (km)</li> <li>➤ Internet-eko ordenagailu nagusien kopurua 1.000 biztanleko</li> <li>➤ Ikastaro/prestakuntza ordu kopurua</li> <li>➤ ETEentzako (merkataritza eta salerosketa elektronikoak, hezkuntza, etab.) edo herritarrentzako linea-zerbitzu kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sare-akatsen kopurua murriztea</li> <li>➤ Sortutako zerbitzu kopurua (Internet-erako sarbidea)</li> <li>➤ TIC delakoetan zerbitzuak garatu eta komertzializatzen dituen enpresa kopurua</li> <li>➤ Sortutako zerbitzuen herritar/enpresa-erabiltzaile kopurua</li> <li>➤ Erabiltzaileen/ikasleen poztasun-indizea (%)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ 6 hilabete baino lehenago lana lortu duen partehartzaile %</li> <li>➤ TIC delakoekin loturiko zerbitzuak garatu eta komertzializatzen dituzten enpresak</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.3. Azpiegitura Energetikoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ahalmen berriko edo hobetuko KW/MW, energia iturrien arabera banakaturik</li> <li>➤ Energiak hornitzeko sarearen Km.</li> <li>➤ elektrikoa/gas eraikita/hobetuta</li> <li>➤ Kable/hoditeria berriaren/hobetuaren Km</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sare berri edo hobetuarekiko loturiko edo hobetutako erabiltzaile kopurua</li> <li>➤ Energia-kosten murrizketa</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Instalakuntzen eraginkortasunen gehikuntza (TPE)</li> <li>➤ Kutsaduraren areagotze edo murrizketa (CO2, SO2, Nox...)</li> <li>➤ Energiaren hornikuntza energia berriztagarrien bitartez gehitzea</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.4. - Ingurumen-azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hobekuntzak instalakuntzen ahalmenetan</li> <li>➤ Ingurumen-teknologiak sartzeko eta produktu ekologikoak garatzeko laguntzak jasotzen dituzten enpresak</li> <li>➤ Inguru naturalaren azalera birgaitu/egokitu/berreskuratuta</li> <li>➤ Sortutako ingurumenarekin loturiko instalakuntzak/zerbitzuak</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ingurumenarekin loturiko hobekuntzen edo zerbitzu/zuzkidura berrien erabiltzaile edo onuradun kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak</li> <li>➤ Ingurumenarekin loturiko zerbitzuak garatu eta komertzializatzen dituzten enpresak</li> <li>➤ Batutako birziklatzeko hondakinen gehikuntza</li> <li>➤ Ingurumen instalakuntzen/inguru berreskuratuen bisitariak</li> <li>➤ .....</li> </ul>

ARDATZA/NEURRIA	BURUTZAPEN-ADIERAZLEAK	EMAITZA-ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>2. ARDATZA: Tokiko oinarrizko azpiegiturak</b>			
2.5. Antolamendu eta Birgaitze azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Birgaitu/egokitutako azalera</li> <li>➤ Erosi, eraiki edo berriztatutako lur-azalera</li> <li>➤ Finantzatutako hiri berrikuntzarako proiektu kopurua</li> <li>➤ Berriztatutako eraikin/etxebizitza kopurua</li> <li>➤ Prestatu edo birgaitutako gune publikoaren (errepide, espaloi, plaza...) m<sup>2</sup></li> <li>➤ berriztatutako zerbitzu/horniketa sare kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hobekuntzen onuradun den tokiko biztanle %</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ Birgaitutako guneetan kokatu diren enpresa/dendaren zenbatetsitako kopurua gehitzea</li> <li>➤ Berrikuntzako gunearen bizilagunen zenbatetsitako kopurua gehitzea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hiri-itxura hobetzea (%)</li> <li>➤ Bistarako eragina gutxitzea (%)</li> <li>➤ prestatu edo birgaitutako gune publikoaren azalera</li> <li>➤ Ukitutako pertsonen ongizatearen hobekuntza</li> <li>➤ Oinezkoen igarotze ludikoak gehitzea</li> <li>➤ Eraikuntza-oztopoak kentzea</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.6. Gizarte eta Osasun azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Prestatuko gizarte- eta/edo sosrospen-azalera (osasun zentroak, 3. adinekoentzat, gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden taldeak...</li> <li>➤ Prestatuko gizarte- eta/edo sosrospen-azalera (osasun zentroak, 3. adinekoentzat, gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden taldeak...</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako azpiegituren bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza (%)</li> <li>➤ Finantzatutako azpiegiturak hartzen dituen biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Bi urte igarota sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak (kopurua eta enpleguaren guztizkoaren %)</li> <li>➤ Gune onuradunean sortutako zerbitzu berrien kopurua</li> <li>➤ Emakume landunen indizearen gehikuntza (%)</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.7. Aisia eta Kultura azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Prestatutako kulturarako eta/edo aisialdirako azalera (kultura etxeak/gelak, liburutegiak, ludotekak, erakusketa-aretoak, auditorioak, aterpetxeak...)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako azpiegituren bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza (%)</li> <li>➤ Finantzatutako azpiegiturak hartzen dituen biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Bi urte igarota sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak (kopurua eta enpleguaren guztizkoaren %)</li> <li>➤ Arlo horretan sortutako enpresak. Aisia eta kulturakoak</li> <li>➤ Gune onuradunean sortutako zerbitzu berrien kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>
2.8. Hezkuntza eta Prestakuntzako azpiegitura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Prestatutako hezkuntza eta/edo prestakuntzarako azalera (prestakuntza-gela tematikoak, gela tematikoak...)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako azpiegituren bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza (%)</li> <li>➤ Finantzatutako azpiegiturak hartzen dituen biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Bi urte igarota sortutako/gordetako lanpostu gordinak/garbiak (kopurua eta enpleguaren guztizkoaren %)</li> <li>➤ Gune onuradunean sortutako zerbitzu berrien kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>

ARDATZA/NEURRIA	BURUTZAPEN-ADIERAZLEAK	EMAITZA-ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>3. ARDATZA: Gizarteratzea eta tokiko zerbitzuak</b>			
3.1. Gizarteratzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako/lagundutako/finantzatutako gizarteratzerako programak/zerbitzuak</li> <li>➤ Onuradun kopurua</li> <li>➤ Laguntza jasotzen duen erakunde eta programa kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunak lan-merkatuan sartzea (%)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunek lanean hastearen indizea, urte bat igaro ondoren.</li> <li>➤ Sortutako gizarte-ekonomiako enpresak</li> <li>➤ Langabezia gutxitzea ukitutako herrietan/taldeetan</li> <li>➤ .....</li> </ul>
3.2. Aukera-berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Lagundutako/finantzatutako/martxan jarritako aukera-berdintasunarekiko programak/zerbitzuak</li> <li>➤ Onuradun kopurua</li> <li>➤ Laguntza jasotzen duen erakunde eta programa kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunak lan-merkatuan sartzea (%)</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunek lanean hastearen indizea, urte bat igaro ondoren.</li> <li>➤ Emakumeen landunen indizearen gehikuntza (%)</li> <li>➤ Emakumeen langabezia gutxitzea</li> <li>➤ .....</li> </ul>
3.3. Gizarte hezkuntza eta prestakuntza.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako prestakuntza/hezkuntza jarduerak</li> <li>➤ "Berariazko jardueri" eta prestakuntzari emandako orduak</li> <li>➤ Sorospena jasotzen duten sare berrien kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Prestakuntzaren/informazioaren onuradun den tokiko biztanle %</li> <li>➤ Berariazko jardueretan parte hartu duten biztanle ukituen proportzioa</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ukitutako biztanleen kualifikazioen gehikuntza (%)</li> <li>➤ Sortutako sareen jasangarritasuna</li> <li>➤ .....</li> </ul>
3.4. Herritarren segurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kontzientziazio-jarduera kopurua</li> <li>➤ Garatutako jarduerak</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako jardueren onuradun kopurua</li> <li>➤ Garatutako jardueretan parte hartu duten biztanle ukituen proportzioa</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Herritarren segurtasunari dagokionez zenbatetsitako gehikuntza (%)</li> <li>➤ .....</li> </ul>
3.5. Gizarte eta laguntza zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako/lagundutako/finantzatutako gizarte eta/edo sorospen programak/zerbitzuak</li> <li>➤ Onuradun kopurua</li> <li>➤ Laguntza jasotzen duen erakunde eta programa kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuen bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza</li> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuek hartzen dituzten biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ukitutako pertsonen ongizatearen hobekuntza</li> <li>➤ Emakumeen langabezia gutxitzea eta/edo enplegua sortzea sorospen alorrean</li> <li>➤ .....</li> </ul>

ARDATZA/NEURRIA	BURUTZAPEN-ADIERAZLEAK	EMAITZA-ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>3. ARDATZA: Gizarteratzea eta tokiko zerbitzuak</b>			
3.6. Gizarte eta kultura zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako/lagundutako/finantzatutako gizarte eta kultura arloko programak/zerbitzuak</li> <li>➤ Onuradun kopurua</li> <li>➤ .....</li> <li>➤</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuen bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza</li> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuek hartzen dituzten biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunen ongizatearen hobekuntza</li> <li>➤ Enplegua/enpresak sortzea sorospen alorrean</li> <li>➤ .....</li> </ul>
3.7. Bestelako tokiko oinarrizko zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Garatutako/lagundutako/finantzatutako tokiko oinarrizko programak/zerbitzuak</li> <li>➤ Onuradun kopurua</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuen bitartez atenditutako erabiltzaile kopuruaren gehikuntza</li> <li>➤ Finantzatutako zerbitzuek hartzen dituzten biztanleak (%)</li> <li>➤ Onuradunen poztasun-indizea</li> <li>➤ .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Onuradunen ongizatearen hobekuntza</li> <li>➤ .....</li> </ul>